

EUSKARAZKO PALINDROMO LEHIAKETA 23-24

Badator palindromo lehiaketa berria!

Zer da palindromoa?

Palindromoa testu kapikua da. Ezkerretik eskuinera zein eskuinetik ezkerrera berdin irakurtzen den hitz edo esaldia.

Euskarazko palindromoen lehenengo lehiaketa 1923ko abenduaren 16an abiatu zen. Kirikiño idazleak, palindromorik luzeenaren bila, 'Euzkadi' egunkariaren orrietatik bideratu zuen. Hilabete parean, irakurleek 150 palindromotik gora bidali zituzten erredakziora.

Mendeurrena betetzen den honetan, erronkari heldu nahi diogu, eta berriro Euskarazko palindromo lehiaketa abian jarri, hizkuntzaren alderdi ludikoa sustatuz, parte hartzaileen kopurua handiagotzeko asmoz.

Euskarak sue!

Palindromo batzuk eredu moduan:

Esanik erruz egi bat eta bi gezurrekin ase. (Markos Gimeno)

Kaosa bizi berez eta batez ere bizi basoak. (R. Peramento)

Akats arrakastak akatsak arrastaka. (Itziar Aranburu)

OINARRIAK

Hona hemen deialdi honetako oinarriak:

1. PARTE HARTZAILEAK.

Lehiaketa honetan edozein adinetako eta jatorritako pertsonak parte hartu ahal izango dute.

2. TESTU PALINDROMOA.

Testu palindromoa **jenialtasuna, zentzua eta zuzentasuna** nabarmenduz osatuko da. Palindromoan H hizkia erabiliz gero bi norabidetan erabiliko da, (hatxea ahoskatzen ez bada ere). Digrafoak (ts, tx, tz...), hots bakarra badira ere, bi letra moduan erabiliko dira: asto hotsa.

3. EUSKARAZ.

Aurkeztutako palindromoa euskaraz idatzita egongo da, **batuan, edozein euskalkitan** zein tokiko euskaran, idatzizko eta ahozko erabilerak kontuan izanik.

4. HEDADURA.

Palindromoaren hedadura gutxieneko **11 letratik aurrerakoa** izango da, eta nahi bezainbesteko hedadura hartuko du.

5. ORIGINALA.

Aurkeztutako palindromoa originala izango da, eta aurretik ez da saritua izango beste edozein lehiaketatan (ezta duela ehun urtekoan!).

6. KOPURUA.

Parte hartzaile bakoitzak **nahi bezainbeste** palindromo aurkeztu ahal izango ditu.

7. BALORAZIOA.

Oro har, hurrengo hauek baloratuko dira:

- **Komunikazio funtzioa**, aberastasun semantikoa, ulergarritasuna.
- **Jenialtasuna**, balio artistikoa, originaltasuna.
- **Zuzentasun formala**, gramatikala.

8. SARIAK EDO KATEGORIAK.

Balorzio atalean aipatutako irizpideak hoberen betetzen dituztenak sarituko dira. Honako sari hauek banatuko dira:

Lehen Saria:

- Mañariko Aurrekoetxe baserrian asteburua bi pertsonarentzat.
- 'Markos Gimenoaren 101 letrakartel' (Pamiela 2023)
- 'Abere ba. Palindromo Ilustratuen Piztegia' (Pamiela 2020)
- Gernika-Lumoko Euskal Herria Museorako bi sarrera, Markos Gimenoaren 'Karteletrak' erakusketa barne.
- Mañariko Hontza Museorako bi sarrera.

Bigarren Saria:

- Mañariko Herriko Taskan bazkaria bi pertsonentzat.
- ‘Markos Gimenoaren ‘101 letrakartel’ (Pamiela 2023)
- ‘Abera ba. Palindromo Ilustratuen Piztegia’ (Pamiela 2020)
- Gernika-Lumoko Euskal Herria Museorako bi sarrera, Markos Gimenoaren ‘Karteletrak’ erakusketa barne.
- Mañariko Hontza Museorako bi sarrera.

Hirugarren Saria:

- Kamiseta Markos Gimenoaren palindromoarekin.
- ‘Markos Gimenoaren 101 letrakartel’ (Pamiela 2023)
- ‘Abera ba. Palindromo Ilustratuen Piztegia’ (Pamiela 2020)
- Gernika-Lumoko Euskal Herria Museorako bi sarrera, Markos Gimenoaren ‘Karteletrak’ erakusketa barne.
- Mañariko Hontza Museorako bi sarrera.

Aipamen bereziak:

Lehen Sari nagusiez gain, hurrengo aipamen bereziak ere sarituko dira, Palindromo liburu sorta —‘Markos Gimenoaren 101 Letrakartel’ (Pamiela), ‘Abera ba. Palindromo Ilustratuen Piztegia’ (Pamiela)— eta BERRIAko produktu batzuk:

- a. Jostariena, dibertigarriena
- b. Palindromorik luzeena
- c. 18 urtetik beherakoen artean borobilena ere sarituko da, aurreko kategorietan aukeratuak izatea oztopatu gabe.

Zozketa:

Parte hartzaile guztien artean honako hauek zozkatuko dira:

- ‘Markos Gimenoaren 101 letrakartel’ (Pamiela 2023) lau liburu.
- ‘Abera ba. Palindromo Ilustratuen Piztegia’ (Pamiela 2020) lau liburu.
- Gernika-Lumoko Euskal Herria Museorako bi sarrera bikoitz, Markos Gimenoaren ‘Karteletrak’ erakusketa barne.
- Mañariko Hontza Museorako bi sarrera bikoitz.

Aurkeztutako lanek gutxieneko kalitaterik ez balute, epaimahaiak sariak hutsik uzteko erabakia har lezake.

9. IZENGOITI ETA DATUAK.

Palindromoa **izengoitiz** aurkeztu beharko da, eta, bidalketan, egileak bere benetako izen-abizenak, adina, udalerrria eta kontakturako datuak adierazi beharko ditu.

10. EPEAK.

2023ko abenduaren 16tik **2024ko otsailaren 2ra arte**.

11. ENTREGA.

Lanak esteka honetako **formularioa betez** aurkeztuko dira.

www.berria.eus/palindromo-lehiaketa.html

12. ARGITALPENA.

Lehiaketan onartutako lanen artean, balorazioaren arabera egindako testuen aukeraketa bat **BERRIaren webgunean argitaratuz** joango dira, egile bakoitzaren izengoitiarekin batera.

13. SARIEN EZAGUTARAZPENA.

Otsailaren 29an palindromoak eta horien egiletza ezagutaraziko dira, baita Euskarazko Palindromo Lehiaketaren **saridunen izenak** ere.

14. EPAIMAHAIKIDEAK.

Joseba Sarrionandia, idazlea; Rober Peramento, palindromogilea; Itziar Aranburu, Bigarako kide eta palindromogilea; Aitor Ogiza 'Toto', Ermuko Kaltxango AEK euskaltegiko irakaslea eta palindromozalea.

15. ONARPENA.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

16. ZALANTZAK.

Zalantzak argitzeko hona zuzendu: palindromoak@gmail.com

17. ANTOLATZAILEAK.

Markos Gimenoren ingurukoek, R. Peramentok eta Bigara elkarteak antolatua, BERRIaren babesletzarekin.